



ZEGAMA KO UDALA

## SAN JOAN SUA

Aparteko beroaldian gaudela-eta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saitetik jakinarazi digute hiru egunez jarraian alarma gorria ezartzea aurreikusten dela muturreko tenperatura altuak direla-eta.

Egoera honek LABIren baliabideak martxan jartzea dakar.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, landa eremuetan San Joan surik ez egitea gomendatu du. Udalon esku utzi du erabakia.

Hau kontuan izanda, eta egoera arriskutsua eta larria dela ikusita, erantzukizunez jokatzea dagokigu. Landa eremuan eta baserri inguruetan, orokorrean Zegama osoan, **SAN JOAN SUA EGITEKO DEBEKUA EZARRI DUGU** Udaletik, behar ez den arriskurik hartu beharrik ez dago-eta.

Herriko plazan egin ohi dugun San Joan suari dagokiola berriz, egoerari egokitutako su txiki eta kontrolatu bat egingo dugu.

Besterik gabe, erabakia ulertuko duzuelakoan eta zentzuz jokatzeko eskaera luzatuz,

Zegaman, 2026ko ekainaren 22an

ALKATEA



Iker Zubeldia Katarain